

BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**SALAMANCA PASEALEKUA 2**

Egilea eta data: Juan Vicente Mendia, 1892

Deskribapena

Eraikina fatxada nagusiaren kutsu neogotiko nabariagatik nabarmentzen da hirian. Nolanahi ere, estilo hori dekorazio gisa soilik agertzen da fatxadan gainjarritako apaindura formetan. Erdiko pinoiak eta estalkiko txapitulek ere joera horri jarraitzen diote. Juan Vicente Mendia arkitektoak proiektatu zuen 1892an. Hala ere, begiratokia (hormigoizkoa) 1914an eraiki zuen Luis Elizalde arkitektoak, jatorrizko eraikinarekin lotzeko eta trazeria gotikoak interpretatzeko saioan. Fatxadaren harlanduzko eraikuntza eta, beste alde batetik, oinplanoaren antolaera nabarmentzen dira. Bertan, eskailera gai nagusizat agertzen da, eraikinaren sarbidetik bertatik. Izan zuen sutearen ondoren, eraikuntzan berreraikitze, huste eta jasotze lanak egin zituzten (2008-2011 artean).

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: 2008-2011 artean gauzatutako jasodurak (3. oinaren gainetik daude).
- B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: babestutako oinen harlandua.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: eraikinaren goialdeko estalkiko, erlaitzeko, txapituleto eta erdiko pinoiko egungo soluzioak finkatzen dira.
- D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.